BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

4296

EBAZPENA, 2011ko ekainaren 29koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, Mundukide Fundazioa / Fundación Mundukide erakundeak 2007ko GLSFren kontura proiektuei laguntzak emateko deialdiaren barruan aurkeztutako «Fortalecimiento institucional del núcleo de empresa participativas de Marrupa» proiektuaren uko-egitea onartzen duena.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2007ko abenduaren 11ko Aginduaren bidez, Mundukide Fundazioa / Fundación Mundukide erakundeari 43.515,01 euroko diru-laguntza eman zitzaion «Fortalecimiento institucional del núcleo de empresas participativas de Marrupa» proiektua gauzatzeko.

Erakunde horrek, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari 2011ko ekainaren 28an bidalitako komunikazioan, uko-egite eskaera egin zuen.

Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Funtsaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuaren 28. artikuluko 1. idatzi-zatiak dioenez, erakunde eskatzaileak edozein gorabehera jakinarazi beharko dio aldez aurretik Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzari, proiekturako aurreikusitako garapenean funtsezko eragina izan dezakeena, eta proiektuan egin nahi diren aldaketak gauzatu aurretik baimen-eskaera bidali beharko dio, aurrekontuan dituzten ondorioak zehaztuta.

Hala ere, proposatutako aldaketak onartzeko eskumenari dagokionez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu, arautu eta jardunean jarri ondoren (ekainaren 19ko 5/2008 Legea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duena; martxoaren 23ko 95/2010 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko erregelamendua onartzen duena; azaroaren 23ko 310/2010 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren jarduerak abiaraztea arautzen duena), aipatutako eskumena eta, oro har, laguntza horiek kudeatzeko behar diren ebazpenak ezartzeko Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Zuzendaritzari dagokio.

Horren ondorioz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Mundukide Fundazioa / Fundación Mundukide erakundeari 2007 GLSFren kontura proiektuetarako laguntzak emateko deialdiaren barruan aurkeztutako «Fortalecimiento institucional del núcleo de empresas participativas de Marrupa» proiektuaren uko-egite eskaera baimentzea. Hau da, lehen ordainketako 403,05 euro itzuli behar dira, kopuru hori ez baita zuritu, eta bigarren eta hirugarren ordainketei uko egin (17.406 euro eta 8.703,01 euro).

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera. Gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu eta hiru hilabete igarota oraindik

ez bada ezer ebatzi, errekurtsoa ez dela onartu pentsatu beharko da, eta administrazioarekiko auzietarako bidea irekiko da.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 29a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
MARTA ARES GODOY.